

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

GIZARTE POLITIKEN SAILA

8/2020 Foru Dekretua, martxoaren 10ekoa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen abuztuaren 2ko Gobernu Kontseiluaren 40/2019 Foru Dekretua aldatzen duena

Tasa eta Prezio Publikoei buruzko azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauak (zati batean azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak aldatu du) Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko erakundeetan tasa eta prezio publikoen araubide juridikoa ezarri zuen. Arabako Lurralde Historikokoaren 1998rako Aurrekontua Betearazteko abenduaren 19ko 33/1997 Foru Arauaren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zentroak eta zerbitzuak erabiltzeagatik 1998ko ekitaldian ordaindu beharreko prezio publikoak finkatu ziren. Geroztik, urtez urte, Diputatuen Kontseiluak prezio publiko horiek aplikatzeko araudia onartu du. Araudi horietan ia modu berean ezarri izan dira urtero Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoei aurrekontu ekitaldi bakoitzean aplikatu beharreko hobariak eta salbuespenak, bai eta horiek kudeatzeko eta zehazteko arauak ere.

Gaur egun, gai hori ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak arautzen du, Arabako foru sektore publikoaren tasa eta prezio publikoei buruzkoak, 1. artikuluan xedatzen duenez.

2019ko abuztuaren 2an, Foru Gobernu Kontseiluak 40/2019 Foru Dekretua onetsi zuen, zeinaren bidez arautzen baitira Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoak. Dekretu horren 12. artikulua norberak erabiltzeko zenbatekoak arautzen ditu, desgaitasuna duten pertsonentzako eta buruko eritasuna duten pertsonentzako egoitzak edo laguntzadun etxebizitzak erabiltzen dituztenek ordaindu beharrekoari dagokionez. Onuradunek erabiltzeko zenbateko hori lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko jakin batekin lotzen da. Horrekin batera, aldatu egin behar da 40/2019 Foru Dekretuaren II. eranskina, "Ahalbide ekonomikoa nahikoa dela zehaztea", bat etor dadin lege testuarekin.

2018an eta 2019an egindako aldaketan ondorioz, lanbide arteko gutxieneko soldata ehuneko 20 baino gehiago handitu da. 2019rako lanbide arteko gutxieneko soldata finkatzen duen abenduaren 21eko 1462/2018 Errege Dekretuko xedapen iragankor bakarraren arabera, lanbide arteko gutxieneko soldatarentzat ezarritako zenbateko berriak ez dira aplikatuko honako hauetan:

a) Errege dekretu hori indarrean sartu zen egunean autonomia erkidegoetan, Ceuta eta Melilla hirietan eta tokiko administrazioa osatzen duten erakundeetan indarrean zeuden arauetan, baldin eta arau horiek lanbide arteko gutxieneko soldata erabiltzen badute errenta mailaren adierazle edo erreferentzia gisa prestazio jakin batzuen zenbatekoa zehazteko edo prestazio, onura edo zerbitzu publiko jakinetarako sarbidea emateko, salbu eta berariaz kontrakoa xedatu autonomia erkidegoek, Ceuta eta Melilla hiriek edo toki administrazioa osatzen duten erakundeek berek.

2018rako lanbide arteko gutxieneko soldata finkatzen duen 1077/2017 Errege Dekretuak, abenduaren 29koak, salbuespen bera jasotzen du bigarren xedapen iragankorrean. Gauza bera dio, halaber, 2017rako lanbide arteko gutxieneko soldata finkatzen duen abenduaren 30eko 742/2016 Errege Dekretuak.

Beraz, argi dago legegileak, lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa handitzeko orduan, 2016rako finkatutako kopuruari eutsi nahi izan ziola erreferentzia kuantitatibo gisa, erreferentzia indize horri lotutako prestazio edo hobari jakin batzuk kalkulatzearen

ondorioetarako. Salbuespen horiei jarraikiz, ez zen aldaketarik egin norberak erabiltzeko zenbatekoan, 2016ko lanbide arteko gutxieneko soldatarentzat ezarritako kopurua hartu baitzen kontuan.

Nolanahi ere, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen Diputatuaren Kontseiluaren 40/2019 Foru Dekretua, abuztuaren 2koa, onetsi zenean, bertan behera geratu zen zenbateko berria ez aplikatzeko salbuespena. Kontuan izanik onetsi den araudi berria aurrekoaren jarraipena dela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuengatik ordaindu beharreko tarifei buruzkoa baita, bidezkoa da ildo beretik jokatzea, hau da, norberak erabiltzeko zenbatekoei eustea; eta, horrenbestez, 2016ko lanbide arteko gutxieneko soldatan oinarritutako zenbateko finkoak ezarri behar dira, soldata horretan geroago izandako aldaketak aintzat hartu gabe.

Bestalde, akats batzuk zuzendu dira: alde batetik, 40/2019 Foru Dekretuan antzemandakoak, eta bestetik, Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 60/2019 Foru Dekretuaren bidez eguneratutako prezio publikoetan.

Arau xedapen hau izapidetzean, kontuan hartu da zer dioten Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planak (2016-2020) oinarri dituen emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipioek eta Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2015 Legearen edukiak. Helburu hauek erdietsi nahi dira horren bidez: tratu berdintasuna, aukera berdintasuna, dibertsitatearekiko eta desberdintasunarekiko errespetua, genero ikuspegia txertatzea, positiboki ekitea, sexuaren araberako rola eta estereotipoak desagerraraztea, ordezkaritza orekatua izatea eta koordinatuta eta lankidetzan jardutea. Legezketasunaren, gardentasunaren eta berdintasunaren printzipioak betez aldatuko dira 40/2019 Foru Dekretuko 12. artikulua eta 41. eta 42. ereduak. Inpaktu negatiborik ez dadin egon emakumeen eta gizonen berdintasun arloan, emandako salbuespenen urteko jarraipena egin nahi da, genero ikuspegitik abiatuta, egon litezkeen desparekotasunak zuzentzeko. Halaber, estatistikak eta azterlanak egokituko dira sexuka banakatutako datuak izateko.

Foru dekretu hau ez dago jasota Arabako Foru Aldundiak 2020rako onetsitako araugintza planean.

Aurrekoagatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen foru diputatuaren eta Gizarte Politiken foru diputatuaren baterako ekimenez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak horren berri izan duela eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia eztabaidatu eta gero,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea 40/2019 Foru Dekretuko 12. artikulua ("Norberak erabiltzeko zenbatekoak"). Honela geratuko da idatzita:

12. artikulua. Norberak erabiltzeko zenbatekoak

1. Desgaitasuna duten pertsonentzako eta buruko eritasuna duten pertsonentzako egoitzak edo laguntzadun etxebizitzak erabiltzen dituztenek ordaindu beharreko prezioa zehazten denean, onuradunek erabiltzeko zenbatekoa ezin da inola ere izan honako muga hauek baino txikiagoa:

a) Urteko 2.751,84 euro, desgaitasuna duten pertsonentzat eta buruko eritasuna duten pertsonentzat, lanik egiten ez duten erabiltzaileak direnean.

b) Urteko 5.503,68 euro, desgaitasuna duten pertsonentzat eta buruko eritasuna duten pertsonentzat, lan egiten duten erabiltzaileak direnean.

2. Adinekoentzako egoitza zerbitzuetan, landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuetan eta eguneko zerbitzu edo zentroetan ordaindu beharrekoaren geroratze partzialaren kasuei

gagozkiela, prezio publikoa dela eta hilean ordaindu beharreko zenbatekoa zehazterakoan, onuradunek erabiltzeko zenbatekoa ezin da inola ere izan honako muga hauek baino txikiagoa:

a) Urteko 1.834,56 euro, adinekoentzako egoitza zentroetako erabiltzaileei dagokienez.

b) Urteko 2.751,84 euro, landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuaren erabiltzaileei dagokienez.

c) Urteko 4.586,40 euro, adinekoentzako eguneko zerbitzu eta eguneko zentroi dagokienez.

3. Arreta soziosanitariorako egoitza unitatearen erabiltzaileek ordaindu beharreko prezio publikoa zehazten denean, erabiltzailearen erabilera libreko zenbatekoa ezin da inola ere izan urteko 1.834,56 euro baino txikiagoa.

4. Artikulu honetan jaso diren erabilera libreko zenbatekoak bermatutzat joko dira, baldin eta, urtean behar besteko errentarik ez egon arren, ondare konputagarriaren balioa honako zenbateko hauek baino handiagoa bada:

a) Diru erraz bihur daitezkeen ondasunetan, 3.000 euroko zenbatekoa, adinekoentzako egoitza zentroi eta landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuei dagokienez.

b) Diru erraz bihur daitezkeen ondasunetan, 15.000 euroko zenbatekoa, adinekoentzako egoitza zentroi eta landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuei lotutako eguneko zerbitzu eta zentroi dagokienez, eguneko laguntza zerbitzua eskaintzen duten landa eremuko zentroetako eguneko zerbitzua eta asteburuak emateko eguneko zentroa eskaintzen duten eguneko zentroak izan ezik.

c) Diru erraz bihur daitezkeen ondasunetan, 20.000 euroko zenbatekoa, arreta soziosanitarioko egoitza unitateei eta desgaitasuna duten pertsonentzako eta buruko eritasuna duten pertsonentzako zerbitzuei dagokienez.

5. Artikulu honen aurreko idatz zatietan jaso ez diren zerbitzuei buruz, norberak erabiltzeko zenbatekoak bermatuko dira zerbitzu bakoitzari dagozkion hobariak zehazteko erabili den formularen bitartez (hobariak foru dekretu honen III. eranskinean ezarri dira).

Bigarrena. Aldatzea 40/2019 Foru Dekretuko 15. artikulua ("Ordaintzeko konpromisoa eta bermeak osatzea"). Foru dekretu honen eranskinean jasotako ereduaren arabera geratuko da idatzita, honela:

15. artikulua. Ordaintzeko konpromisoa eta bermeak osatzea

1. Ordainketaren zati bat geroratzea onartzen ez duten zerbitzuetan, dagokion ebazpenaren bitartez zerbitzua esleitu, eta zerbitzua bera erabiltzen bada, egintzat joko da ordaintzeko konpromisoa. Beraz, halaxe denean, ez da beharrezkoa izango ordaintzeko konpromisoa berariaz adierazteko formulariorik betetzea.

2. Ordainketaren zati bat geroratzea onartzen duten zerbitzuetan, gerorapen hori eskatzen ez bada, diru sarrera egin baino gutxienez zazpi egun baliodun lehenago aurkeztu beharko da ordaintzeko konpromisoa. Horretarako, foru dekretu honen IV. eranskinean jaso diren formularioak bete beharko dira. Honako hauek dira formulariook:

a) Ez bada eskatu geroratzerik, edo ez badira betetzen horretarako baldintzak:

- 035 eredua, ordaintzeko konpromisoa eskatzaileak berak aurkezten badu;
- 036 eredua, ordaintzeko konpromisoa eskatzailearen legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak aurkezten badu;
- 037 eredua, modu subsidiarioan ordaintzera behartuta dagoen dohaintza hartzaileak ordaintzeko konpromisoa onartzen duenean;

- 038 eredia, ordaintzera behartuta ez dagoen hirugarren pertsona batek ordaintzeko konpromisoa borondatez onartzen duenean.

b) Ordainketa geroratzeko eskatu bada:

- 039 eredia, ordainketaren zati bat geroratzeko eskaera eskatzaileak berak aurkezten badu.
- 040 eredia, ordainketaren zati bat geroratzeko eskaera eskatzailearen legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak aurkezten badu.

3. Ordainketaren zati bat geroratzea onartzen duten zerbitzuetan, gerorapen hori eskatu nahi bada, zorra aitortzeko dokumentuan txertatuko da ordaintzeko konpromisoa. Dokumentu mota hori foru dekretu honen 18. artikuluan araututa dago. Kasua zein den, dagokion dokumentua bete beharko da:

a) 041 eredia, eskatzaileak berak aurkezten badu; edo 042 eredia, eskatzailearen legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak aurkezten badu;

b) 043 eredia, modu subsidiarioan ordaintzera behartuta dagoen dohaintza hartzaileak zorra aitortzen badu.

4. Ordainketaren zati bat geroratzea onartzen duten zerbitzuetan, geroratzea aukeratu zein ez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak beharrezko deritzen bermeak eskatu ahal izango dizkie pertsoneri, baldin eta pertsona horien errentak, hileko zenbaketan, prezio publikoa (eskatu daitekeena) bezain handiak edo handiagoak ez badira.

5. Aurreko lerroaldean ezarritako kasuetan, zuzenbidean onartzen den edozein modutan eskatu ahal izango dira bermeok, aitortu den zorra edo sor daitekeena ordainduko dela bermatzeko. Horrez gain, kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egoki eta aski deritzon ordainketa bermatzeko edozein formula adostu ahal izango du. Berme mota berariaz adierazi behar da foru dekretu honen IV. eranskinean jasotako ereduetan. Eredua kasuaren arabera aukeratu beharko da:

a) Gerorapena aukeratzen ez bada, modu subsidiarioan ordaintzera behartuta dagoen dohaintza hartzaileak ordaintzeko konpromisoa onartzen badu, berme mota 037 ereduan aurkeztu beharko du; ordaintzera behartuta ez dagoen hirugarren batek bere borondatez onartzen badu ordaintzeko konpromisoa, 038 eredia bete beharko du.

b) Gerorapena eskatzea aukeratzen bada, eskatzaileak berak aurkezten badu, 041 ereduan (bertan zor aitortpena jasota dago) adierazi beharko du berme mota. Eskatzailearen legezko ordezkariak edo egitatezko zaintzaileak aurkezten badu, 042 ereduan. Modu subsidiarioan ordaintzera behartuta dagoen dohaintza hartzaileak zorra aitortu eta bermea ematen badu, 043 dokumentuan adierazi beharko du.

6. Artikulu honen 5. b) letran ezarritako kasuetan, bermea ondare higiezinez osatuta baldin badago, zorra aitortzeko agirian adierazi beharreko berme motaren azalpenean ondare hori identifikatzeko datu guztiak adierazi beharko dira, erregistroko inskripzioan jasota dauden bezala, aipatu den letran ezarritakoaren arabera. Kasu horietan, Jabetza Erregistroan zorra erregistratzea eta dagokion notario eskritura egitea eskatuko da.

7. Bermea artikulu honen 5 eta 6 lerroaldeetan ezarritako baldintzetan eraterik ez dagoenean edo bermea nahikoa ez denean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak honako foru dekretu honen 6. artikuluan ezarritakoari jarraiki, ondoko agiriak aurkezteko eskatu ahalko dio erabiltzaileari edo ordainketa egiteko obligaziodunari: aurrezki libreten edo eperako aurrezki libreten eta/edo titularra edo titularkidea deneko banku erakunde eta/edo aurrezki kutxen kontu korronteen mugimenduen orriak, sartzeko eskaera egiten den datatik aurreko azken bost urteetakoak. Era berean, edozein diru ondasun adierazi beharko du, zeinahi titulu dela eta, bera jabea edo jabeakidea bada.

Foru dekretu honen 6. artikulua arabera ordaindu behar duen pertsonari Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskatu ahal izango dio emandako agiriei buruzko azalpenak eman ditzala, artikulua honetan ezarritakoa betetzeko.

Hirugarrena. Aldatzea 40/2019 Foru Dekretuaren I., II. eta III. eranskinak, zeinak 60/2019 Foru Dekretuak eguneratu baitzituen. Honela geratuko dira:

I. ERANSKINA
GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAK EMATEN DITUEN ZERBITZUENGATIK
ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOEN ZENBATEKOAK

Eranskin honetan bildu dira Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuak ordaindu behar dituztenek erakunde horri 2020. urtean eta, beste prezio batzuk onartu arte, urte horren ondoren ere ordaindu beharko dizkioten prezio publikoak.

a) ZERBITZU OROKORRAK	
1. tarifa. Etxez laguntza zerbitzua	6,12 €/ordu
2. tarifa. Egoitza unitate soziosanitarioa	38,19 €/egun

b) ADINEKOENTZAKO ETA DESGAITASUN DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZU ERKIDEAK	
3. tarifa. Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzua: Laguntza produktuak eskuetartzeko zerbitzua	9,88 €/hil

c) ADINEKOENTZAKO ZERBITZUAK	
4. tarifa. Landa eremuko ostatu zerbitzua	595,83 €/hil
5. tarifa. Egoitza zentroak:	
5.1. Tarifa. Orokorra	1.161,71 €/hil
5.2 tarifa. Berezia	1.456,56 €/hil
Tarifa hori aplikatuko da hileko per capita ahalbide ekonomikoa 2.000 eurotik gorakoa denean.	
6. tarifa. Eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa egoitza zentroetan	513,39 €/hil
6.1. tarifa. Eguneko zentroa eta garraioa	6. tarifaren % 100
6.2. tarifa. Eguneko zentroa, garraiorik gabe	6. tarifaren % 80
6.3. tarifa. Asteburua emateko eguneko zentroa eta garraioa	6. tarifaren % 40
6.4. tarifa. Asteburua emateko eguneko zentroa, garraiorik gabe	6. tarifaren % 32
6.5. tarifa. Asteburua emateko (egun bakarra) eguneko zentroa eta garraioa	6. tarifaren % 20
6.6. tarifa. Asteburua emateko (egun bakarra) eguneko zentroa, garraiorik gabe	6. tarifaren % 16
6.7. tarifa. Landa eremuko eguneko zerbitzua egoitza zentro batean eta garraioa	6. tarifaren % 70
6.8. tarifa. Landa eremuko eguneko zerbitzua egoitza zentro batean, garraiorik gabe	6. tarifaren % 56
Erabiltzaileak zerbitzua garraioarekin edo garraiorik gabe jasotzea hauta dezake; batera zein bestera, gutxienez hiru hilabetean eutsi behar zaio hautapenari.	
7. tarifa. Eguneko laguntza landa eremuko ostatu zerbitzu batean	201,33 €
8. tarifa. Eguneko arretako landa eremuko zentroak	
8.1. tarifa. Arreta pertsonala emateko zerbitzua	119,73 €/hil
Zerbitzu osagarriak:	
8.2. tarifa. Otordu zerbitzua	81,60 €/hil
8.3. tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua	7,54 €/saio
8.4. tarifa. Bainu geriatrikoa emateko zerbitzua	4,68 €/saio
8.1. edo 8.2. tarifa aplikatzen zaien zerbitzuak asteko egun guztietan erabiltzen ez badira, prezioa erabileraren proportziozkoa izango da.	
Irizpide bera ezarriko zaie zentro horietako atsedeen zerbitzuei.	
9. tarifa. Atsedeen zerbitzuak	
9.1. tarifa. Atsedeen zerbitzua egoitza zentroetan	38,19 €/egun
9.2 tarifa. Atsedeen zerbitzua eguneko zentroan	24,84 €/egun
9.3 tarifa. Atsedeen zerbitzua eguneko zerbitzua eskaintzen duten egoitza zentro batean	17,45 €/egun
10. tarifa. Atsedeen zerbitzua landa eremuko ostatu zerbitzuan	19,58 euro/egun
11. tarifa. Atsedeen zerbitzua eguneko laguntza eskaintzen duen landa eremuko ostatu zerbitzuan	9,78 €/egun
12. tarifa. Atsedeen zerbitzua eguneko laguntza eskaintzen duen landa eremuko zentroan (arreta pertsonala)	5,81 €/egun
12.1. tarifa. Zerbitzu osagarriak	8. tarifaren arabera

d) DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK	
13. tarifa. Bizimodu independenteari laguntzeko zerbitzua	22,97 €/hil
14. tarifa. Egoitza zentroak	1.161,71 €/hil
14.1. tarifa. Egoitza	14. tarifaren % 100
14.2. tarifa. Laguntzadun etxebizitza: asteko arreta osoa eta gaueko gainbegiraketa	14. tarifaren % 90
14.3. tarifa. Aldizkako laguntza duen etxebizitza	14. tarifaren % 35
15. tarifa. Adimen urritasuna edo garapen nahasmenduak dituzten pertsonentzako eguneko zentroa:	194,60 €/hil
15.1. tarifa. Adimen urritasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa	15. tarifaren % 100.
15.2. tarifa. Garapen nahasmenduak dituzten pertsonentzako eguneko zentroa	15. tarifaren % 100.
16. tarifa. Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako eguneko zentroa	194,60 €/hil
16.1. tarifa. Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako eguneko zentroa, lansia osoan	16. tarifaren % 100.
16.2. tarifa. Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako eguneko zentroa, lansia erdian (otordurik ez)	16. tarifaren % 35
17. tarifa. Autonomia pertsonala sustatzeko zentroa muga fisiko eta organiko larriak dituzten pertsonentzat	16. tarifaren % 57,23
17.1. tarifa. Arreta pertsonalizatua:	
17.1.1. tarifa. Arreta pertsonala, astean 29 eta 35 ordu artekoa	16. tarifaren % 57,23
17.1.2. tarifa. Arreta pertsonala, astean 22 eta 28 ordu artekoa	16. tarifaren % 45,78
17.1.3. tarifa. Arreta pertsonala, astean 15 eta 21 ordu artekoa	16. tarifaren % 34,34
17.1.4. tarifa. Arreta pertsonala, astean 8 eta 14 ordu artekoa	16. tarifaren % 22,89
17.1.5. tarifa. Arreta pertsonala, astean 7 ordu artekoa	16. tarifaren % 11,45
17.2. tarifa. Zerbitzu osagarria: otordu zerbitzua	83,23 €/hil
17.2.1. tarifa. Otordu zerbitzua: 5 egun/aste	17.2. tarifaren % 100
17.2.2. tarifa. Otordu zerbitzua: 4 egun/aste	17.2. tarifaren % 80
17.2.3. tarifa. Otordu zerbitzua: 3 egun/aste	17.2. tarifaren % 60
17.2.4. tarifa. Otordu zerbitzua: 2 egun/aste	17.2. tarifaren % 40
17.2.5. tarifa. Otordu zerbitzua: 1 egun/aste	17.2. tarifaren % 20
Erabiltzaileak zerbitzua otordu zerbitzuarekin edo otordu zerbitzurik gabe jasotzea hauta dezake; batera zein bestera, gutxienez hiru hilabete behar zaio hautapenari	
18. tarifa. Eguneko zerbitzua egoitza zentroetan	136,22 €/hil
19. tarifa. Otordu zerbitzu osagarria okupazio zerbitzuan edo zentroan edo eguneko zentroan	83,23 €/hil
Erabiltzaileak okupazio zerbitzua edo zentroa otordu zerbitzuarekin edo otordu zerbitzurik gabe jasotzea hauta dezake; batera zein bestera, gutxienez hiru hilabete behar zaio hautapenari	
20. tarifa. Atsedeen zerbitzua:	
20.1. tarifa. Atsedeen zerbitzua egoitzan	38,19 €/egun
20.2. tarifa. Atsedeen zerbitzua laguntzadun etxebizitzan: asteko arreta osoa eta gaueko gainbegiraketa	34,37 €/egun
20.3. tarifa. Atsedeen zerbitzua aldizkako zerbitzua eskaintzen duen etxebizitzan	13,37 €/egun
20.4. tarifa. Atsedeen zerbitzua eguneko zentroan	9,41 €/egun
20.5. tarifa. Atsedeen zerbitzua eguneko zerbitzuan	6,59 €/egun
20.6. tarifa. Beste atsedeen zerbitzu batzuk	25,50 €/gau
21. tarifa. Desgaitasuna duten haur eta gazteentzako aisialdi programa	124,44 €/aste

e) BURUKO ERITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK	
22. tarifa. Bizimodu independenteari laguntzeko zerbitzua	22,97 €/hil
23. tarifa. Egoitza zentroak	1.161,71 €/hil
23.1. tarifa. Egoitza	23. tarifaren % 100
23.2. tarifa. Laguntzadun etxebizitza: Gizarte eta hezkuntzako ostalua eta etengabeko arreta	23. tarifaren % 70
23.3. tarifa. Laguntzadun etxebizitza: Gizarte eta hezkuntzako ostalua, etengabeko arretarik gabe	23. tarifaren % 30
24. tarifa. Eguneko zentroa	194,60 €/hil
24.1. tarifa. Eguneko zentroa, egun osoa	24. tarifaren % 100
24.2. tarifa. Eguneko zentroa, egun erdia (otordurik gabe)	24. tarifaren % 35
25. tarifa. Atsedeen zerbitzua:	
25.1. tarifa. Atsedeen zerbitzua egoitzan	38,19 €/egun

25.2. tarifa. Atsedeen zerbitzua laguntzadun etxebizitzan: gizarte eta hezkuntzako ostatu zerbitzua eta etengabeko arreta		26,73 €/egun
25.3. tarifa. Atsedeen zerbitzua laguntzadun etxebizitzan: gizarte eta hezkuntzako ostatu zerbitzu, etengabeko arretarik gabe		11,45 €/egun
25.4. tarifa. Buruko eritasuna duten pertsonentzako atsedeen zerbitzua eguneko zentroan		9,41 €/egun
25.5. tarifa. Beste atsedeen zerbitzu batzuk		25,50 €/gau
26. tarifa. Otordu zerbitzu osagarria eguneko zentroan:		83,23 €/hil
Erabiltzaileak eguneko zentroaren zerbitzua otordu zerbitzuarekin edo otordu zerbitzurik gabe jasotzea hauta dezake; batera zein bestera, gutxienez hiru hilabete eutsi behar zaio hautapenari.		
27. tarifa. Gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko zerbitzua eta esku hartze psikosozialeko zerbitzua buruko eritasuna duten pertsonentzat eta/edo haien senitartekoentzat	I	22,97 €/hi

f) HAURRENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO ZERBITZUAK

28. tarifa. Atingabekoentzako egoitza zentroak (norberaren borondatezko zaintzagaratik soilik ordaindu beharko da prezio publikoa):		348,51 €/hil
28.1. tarifa. Egoitza zentroa		28. tarifaren % 100
28.2. tarifa. Harrera etxebizitza		28. tarifaren % 100
28.3. tarifa. Emantzipaziorako prestatzeko zentroa		28. tarifaren % 80
28.4. tarifa. Emantzipaziorako etxebizitza		28. tarifaren % 50
29. tarifa. Haurrentzako eguneko zentroa (norberaren borondatezko zaintzagaratik soilik ordaindu beharko da prezio publikoa)		22,97 €/hil

g) ERABILITZAILE IRAUNKOR EZ DIREN PERTSONENTZAKO ZERBITZU OSAGARRIAK

30. tarifa. Erabiltzaile iraunkor ez diren pertsonentzako zerbitzu osagarriak		
30.1. tarifa. Otordu zerbitzua egoitza zentroetan adinekoentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat, eta okupazio zentroetan desgaitasuna duten pertsonentzat		5,61 €/ale
30.2. tarifa. Otordu zerbitzua landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuan		5,50 €/ale
30.3. tarifa. Bainu geriatrikoa egoitza zentroetan adinekoentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat		4,77 €/saio
30.4. tarifa. Bainu geriatrikoa landa eremuko ostatu zerbitzuan		4,68 €/saio
30.5. tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua egoitza zentroetan adinekoentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat		7,69 €/saio
30.6. tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuan		7,54 €/saio
31. tarifa. Zerbitzu nagusien erabiltzaile iraunkorren senitartekoentzako zerbitzu osagarriak. Honako hauek eskaintzen dira:		
31.1. tarifa. Otordu zerbitzua egoitza zentroetan adinekoentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat		5,61 €/ale
31.2. tarifa. Otordu zerbitzua landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuan		5,50 €/ale

II. ERANSKINA

AHALBIDE EKONOMIKOA NAHIKOA DELA ZEHAZTEA

I. eranskinean ageri diren prezio publikoak indarrean dauden bitartean, zerbitzu baten erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa nahikotzat joko da eranskin honetan ezarritako kasuetan.

1. Hobariak zehazteko 8.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, prezio publikoa osorik ordaintzeko behar besteko ahalbide ekonomikoa dagoela joko da, ahalbide ekonomiko hori III. tituluaren I. kapituluaren ezarritakoaren arabera kalkulatuta, a) eta b) letretan adierazitako mugak bezain handia edo horiek baino handiagoa denean:

a) Per capita edo banakako hileko ahalbide ekonomikoa kontuan hartzen denean aplikagarriak diren mugak:

Zerbitzu Orokorrak	Egoitza unitate soziosanitarioa	1.314,59 €/hil	
Adinekoentzako zerbitzuak	Atsedeen zerbitzua egoitzan	1.314,59 €/hil	
	Atsedeen zerbitzua landa eremuan ostatua ematen duten zerbitzuetan	825,15 €/hil	
Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuak		12.1.a) art.	12.1.b) art.
	Egoitza	1.391,03 €/hil	1.620,35 €/hil
	Laguntzadun etxebizitza: Asteko arreta osoa eta gaueko gainbegiraketa	1.274,86 €/hil	1.504,18 €/hil
	Aldizkako laguntza duen etxebizitza	635,92 €/hil	865,24 €/hil
	Atsedeen zerbitzua egoitza zentroetan desgaitasuna duten pertsonentzat	1.391,03 €/hil	1.620,35 €/hil
	Atsedeen zerbitzua laguntzadun etxebizitzan: Asteko arreta osoa eta gaueko gainbegiraketa	1.274,86 €/hil	1.504,18 €/hil
	Atsedeen zerbitzua aldikako zerbitzua eskaintzen duen etxebizitzan	635,92 €/hil	865,24 €/hil
Buruko eritasuna duten pertsonentzako zerbitzuak	Egoitza	1.391,03 €/hil	1.620,35 €/hil
	Laguntzadun etxebizitza: gizarte eta hezkuntzako ostatua eta etengabeko arreta	1.042,52 €/hil	1.271,84 €/hil
	Laguntzadun etxebizitza: gizarte eta hezkuntzako ostatua, etengabeko arretarik gabe	577,83 €/hil	807,15 €/hil
	Atsedeen zerbitzua egoitzetan, buruko eritasuna duten pertsonentzat	1.391,03 €/hil	1.620,35 €/hil
	Atsedeen zerbitzua laguntzadun etxebizitzan: gizarte eta hezkuntzako ostatua eta etengabeko arreta	1.042,52 €/hil	1.271,84 €/hil
	Atsedeen zerbitzua laguntzadun etxebizitzan: gizarte eta hezkuntzako ostatua, etengabeko arretarik gabe	577,83 €/hil	807,15 €/hil

b) Familiako hileko ahalbide ekonomikoa kontuan hartzen denean aplikagarriak diren mugak:

Zerbitzu Orokorrak	Etxe laguntza zerbitzua	1.500,00 €/hil
Adinekoentzako zerbitzuak	Eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa egoitza zentroetan	1.500,00 €/hil
	Eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa landa eremuko ostatu zerbitzuetan	1.500,00 €/hil
	Asteburua emateko eguneko zentroa	1.500,00 €/hil
	Eguneko arretarako landa zentroa	1.500,00 €/hil
	Eguneko zerbitzua edo zentroa adimen edo garapen urritasuna duten pertsonentzat	1.500,00 €/hil
Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuak	Eguneko zerbitzua edo zentroa eta/edo norberaren autonomia sustatzeko zentroa muga fisiko eta organiko larriak dituzten pertsonentzat	1.500,00 €/hil
	Eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa egoitza zentroetan	1.500,00 €/hil
Buruko eritasuna duten pertsonentzako zerbitzuak	Eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa egoitza zentroetan	1.500,00 €/hil

Haurrentzako eta familientzako zerbitzuak		Zerga oinarria
	Egoitza zentroa	18.000 €/urte
	Harrera etxebizitza	18.000 €/urte
	Emantzipaziorako prestatzeko zentroa	14.400 €/urte
	Emantzipaziorako etxebizitza	7.200 €/urte
	Eguneko zentroa haurrentzat	7.200 €/urte

Era berean, aurreko a) eta b) letretan kontuan hartu diren kasuetan, behar besteko ahalbide ekonomikoa dagoela joko da pertsonaren ondare zenbakarria 50.000 eurokoa edo hori baino handiagoa denean, nahiz eta III. tituluko I. kapituluaren arabera kalkulaturako ahalbide ekonomikoa aurreko tauletan ezarri diren mugak baino txikiagoa izan.

2. Adinekoentzako egoitza zerbitzuetan eta landa eremuko adinekoentzako osatu zerbitzuetan ordainketa geroratzeari buruz 16.1 artikuluan ezarri diren ondorioetarako, behar besteko ahalmen ekonomikoa dagoela joko da III. tituluko I. kapituluaren arabera kalkulaturako ahalmen ekonomikoa honako muga hauen bestekoa edo hauek baino handiagoa denean:

Adinekoentzako zerbitzuak	Landa eremuan ostatua hartzeko zerbitzua	825,15 €/hil
	Egoitza zentroa: 5.1. tarifa arrunta denean	1.314,50 €/hil
	Egoitza zentroa: 5.2. tarifa berezia denean	1.609,44 €/hil

3. Era berean, ahalbide ekonomiko nahikoa dagoela joko da pertsonak diru erraz bihur daitekeen ondarea daukanean, ondoko zenbatekoetatik gorakoa:

a) 3.000 eurokoa, landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzu eta egoitza zentroi dagokienez

b) 15.000 eurokoa, adinekoentzako eguneko zerbitzu eta eguneko zentroi dagokienez.

III. ERANSKINA
I. ERANSKINEAN EZARRITAKO PREZIO PUBLIKOAK INDARREAN
DAUDEN ALDIAN APLIKATUKO DIREN HOBARIAK

I. eranskinean ezarritako prezio publikoen indarraldian, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalbide ekonomikoa ez duten pertsonen honako hobari hauek aplikatuko zaizkie, foru dekretu honetako 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira:

1. ZERBITZU OROKORREN ORDAINKETAN APLIKATUKO DIREN HOBARIAK

- Etxeko laguntza zerbitzua

Zerbitzu horren banako prezioaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako taula honetan ageri diren hileko kopuruak aplikatu behar dira, familiaren hileko ahalmen ekonomikoa oinarritzat hartuta:

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROAK)	GEHIENEZ (EUROAK)	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ	EHUNEKOA
Gutxienez, 0,00	0,00	0	500,00	0,20
600,00	500,00	1,12	100,00	0,30
700,00	600,00	1,42	100,00	0,40
800,00	700,00	1,82	100,00	0,50
900,00	800,00	2,32	100,00	0,60
1.000,00	900,00	2,92	100,00	0,75
1.100,00	1.000,00	3,67	100,00	0,90
1.200,00	1.100,00	4,57	100,00	0,55
1.300,00	1.200,00	5,12	100,00	0,40
1.400,00	1.300,00	5,52	100,00	0,30
1.500,00	1.400,00	5,82	100,00	0,30
1.500,00 euro baino gehiago	Gehieneko tarifa		6,12 euro/ordu	

Ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, hileko orduen kopurua zehaztu behar da, eta horretarako, asteko orduen batura bider 4,3 egin behar da.

- Egoitza unitate soziosanitarioa

Erabiltzaileak prezio publikoa osorik ordaintzeko ahalmen ekonomiko nahikorik ez badauka, Egoitza unitate soziosanitarioaren zerbitzuaren ziozko banako prezioa erabiltzaile horren banako eta hileko ahalmen ekonomikoaren ehuneko 80koa izango da, baina, nolana ere, 12.3 artikulua ezarritako erabilera libreko zenbateko egokiari eutsi behar zaio. Zenbateko hori gainerakoan bermatuko da, ondare konputagarriaren kontura.

Erabilera libreko zenbateko egokiari eusteko ondare konputagarri nahikorik izan ezean, banako prezioa gutxitu egingo da 12. artikulua kasuan-kasuan ezartzen duen zenbatekoa bermatu arte.

Erabiltzailearen ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez berarekin lotuta dagoen pertsonak –foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan– familiaren egoitzan bizitzen jarraitzen badu, erabilera libreko zenbatekoa (12.3 artikuluan zehaztuta) ehuneko 50 handitu beharko da.

2. ADINEKOENTZAKO ZERBITZUEN ORDAINKETAN APLIKATUKO DIREN HOBARIAK

- Zerbitzuak eguneko arretarako landa zentroetan

Eguneko arretako landa zentroetan arreta pertsonaleko zerbitzua jasotzeagatik ordaindu beharreko banakako prezioa kalkulatzeko, honako baremo taula honetako hileko kopuruak aplikatu behar dira, familiaren hileko ahalbide ekonomikoa oinarritzat hartuta:

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROAK)	GEHIENEZ (EUROAK)	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ	EHUNEKOA
Gutxienez, 0,00	0	0	500,00	3,0
600,00	500,00	17,35	100,00	5,0
700,00	600,00	22,35	100,00	7,0
800,00	700,00	29,35	100,00	10,0
900,00	800,00	39,35	100,00	10,0
1.000,00	900,00	49,35	100,00	11,0
1.100,00	1.000,00	60,35	100,00	11,0
1.200,00	1.100,00	71,35	100,00	12,0
1.300,00	1.200,00	83,35	100,00	12,0
1.400,00	1.300,00	95,35	100,00	12,0
1.500,00	1.400,00	107,35	100,00	12,38
1.500,00 euro baino gehiago	Gehieneko tarifa		119,73 euro	

• Eguneko zerbitzua edo eguneko zentroa egoitza zentroetan eta asteburua emateko eguneko zentroa

Zerbitzu horiek jasotzeagatik ordaindu beharreko banako prezioaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako baremo taulako hileko kopuruak aplikatu behar dira, erabiltzailearen familiaren hileko errenta oinarritzat hartuta:

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROAK)	GEHIENEZ (EUROAK)	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ	EHUNEKOA
Gutxienez, 0,00	0	0	500,00	23,00
600,00	500,00	115,00	100,00	33,00
700,00	600,00	148,00	100,00	35,00
800,00	700,00	183,00	100,00	38,00
900,00	800,00	221,00	100,00	42,00
1.000,00	900,00	263,00	100,00	45,00
1.100,00	1.000,00	308,00	100,00	48,00
1.200,00	1.100,00	356,00	100,00	51,00
1.300,00	1.200,00	407,00	100,00	60,00
1.400,00	1.300,00	467,00	100,00	24,00
1.500,00	1.400,00	491,00	100,00	22,39
1.500,00 euro baino gehiago	Gehieneko tarifa		513,39 euro	

Zerbitzu bakoitzaren zioz ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, foru dekretu honen I. eranskineko 6.1etik 6.8ra arteko tarifa egokiak aplikatu behar dira aurreko taulan ageri diren zenbatekoen gainean, modalitatea zein den.

Bi ezkontideak edo ezkontzaren antzeko lotura duten bi pertsonak –foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan– eguneko zerbitzuaren, eguneko zentroaren edo eguneko arretaren erabiltzaile badira egoitza zentroetan, landa eremuko ostatu zerbitzuetan edo asteburua emateko eguneko zentroetan, aurreko taulan ageri diren ehunekoaren gaineko sarrera oinarria familia unitatearen hileko ahalmen ekonomikoaren % 65ekoa izango da. Ezkontide edo ezkontzaren antzeko lotura daukan pertsona –foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan– egoitzan badago, ehuneko hori 50ekoa izan da.

• Atsedeen zerbitzua egoitza zentroetan eta landa eremuko ostatu zerbitzuetan

Erabiltzaileak prezio publikoa osorik ordaintzeko ahalbide ekonomiko nahikorik ez badauka, egoitza zentroetan eta landa eremuko ostatu zerbitzuetan eskaintzen den atsedeen zerbitzuaren ziozko banako prezioa erabiltzaile horren banako eta hileko ahalmen ekonomikoaren ehuneko

80koa izango da, baina, nolana ere, 12.2 artikulua ezarritako erabilera libreko zenbateko egokiari eutsi behar zaio. Zenbateko hori gainerakoan bermatuko da, ondare konputagarriaren kontura.

Erabilera libreko zenbateko egokiari eusteko ondare konputagarri nahikorik izan ezean, banako prezioa gutxitu egingo da 12. artikulua kasuan-kasuan ezartzen duen zenbatekoa bermatu arte.

Erabiltzailearen ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez berarekin lotuta dagoen pertsonak –foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan– familiaren egoitzan bizitzen jarraitzen badu, erabilera libreko zenbatekoa (12.2 artikuluan zehaztuta) ehuneko 50 handitu beharko da.

3. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK

- Egoitza zentroak

Erabiltzaileak prezio publikoa osorik ordaintzeko ahalbide ekonomiko nahikorik ez badauka, egoitza zentroetan eskaintzen den zerbitzuaren ziozko banako prezioa erabiltzaile horren banako eta hileko ahalmen ekonomikoaren ehuneko 80koa izango da, baina, nolana ere, 12.1 artikulua ezarritako erabilera libreko zenbateko egokiari eutsi behar zaio. Zenbateko hori gainerakoan bermatuko da, ondare konputagarriaren kontura.

Erabilera libreko zenbateko egokiari eusteko ondare konputagarri nahikorik izan ezean, banako prezioa gutxitu egingo da 12. artikulua kasuan-kasuan ezartzen duen zenbatekoa bermatu arte.

Erabiltzailearen ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez berarekin lotuta dagoen pertsonak –foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan– familiaren egoitzan bizitzen jarraitzen badu, erabilera libreko zenbatekoa (12.1 artikuluan zehaztuta) ehuneko 50 handitu beharko da.

- Atsedeen zerbitzua egoitza zentroetan

Erabiltzaileak prezio publikoa osorik ordaintzeko ahalbide ekonomiko nahikorik ez badauka, egoitza zentroetan eskaintzen den atsedeen zerbitzuaren ziozko banako prezioa erabiltzaile horren banako eta hileko ahalmen ekonomikoaren ehuneko 80koa izango da, baina, nolana ere, 12.1 artikulua ezarritako erabilera libreko zenbateko egokiari eutsi behar zaio. Zenbateko hori gainerakoan bermatuko da, ondare konputagarriaren kontura.

Erabilera libreko zenbateko egokiari eusteko ondare konputagarri nahikorik izan ezean, banako prezioa gutxitu egingo da 12. artikulua kasuan-kasuan ezartzen duen zenbatekoa bermatu arte.

Erabiltzailearen ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez berarekin lotuta dagoen pertsonak –foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan– familiaren egoitzan bizitzen jarraitzen badu, erabilera libreko zenbatekoa (12.1 artikuluan zehaztuta) ehuneko 50 handitu beharko da.

- Eguneko zentroa

Honako zerbitzu aldaera hauek sartzen dira: eguneko zentroa adimen urritasuna edo garapenaren nahasmendua duten pertsonentzat; eguneko zentroa egoitza zentroetan desgaitasun fisikoa duten pertsonentzat.

Adimen urritasuna edo garapenaren nahasmendua duten pertsonen zerbitzu horiek jasotzeagatik ordaindu beharreko banako prezioaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako taula honetan ageri diren hileko kopuruak aplikatu behar dira, erabiltzailearen familiaren hileko ahalbide ekonomikoa oinarritzat hartuta:

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROAK)	GEHIENEZ (EUROAK)	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ	EHUNEKOA
Gutxienez, 0,00	0	0	500,00	12,00
600,00	500,00	60,00	100,00	12,00
700,00	600,00	72,00	100,00	12,00
800,00	700,00	84,00	100,00	13,00
900,00	800,00	97,00	100,00	13,00
1.000,00	900,00	110,00	100,00	13,00
1.100,00	1.000,00	123,00	100,00	13,00
1.200,00	1.100,00	136,00	100,00	14,00
1.300,00	1.200,00	150,00	100,00	14,00
1.400,00	1.300,00	164,00	100,00	14,00
1.500,00	1.400,00	178,00	100,00	16,60
1.500,00 euro baino gehiago	Gehieneko tarifa		194,60 euro	

Eguneko zentroan eta/edo norberaren autonomia sustatzeko zentroan, muga fisiko eta organiko larriak dituzten pertsonak zerbitzua jasotzeagatik ordaindu beharreko banakako prezioa kalkulatzeko, honako taula honetan ageri diren hileko kopuruak aplikatu behar dira, familiaren hileko ahalmen ekonomiko oinarritzat hartuta:

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA	GEHIENEZ (EUROAK)	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ	EHUNEKOA
Gutxienez, 0,00	0	0	500,00	7,00
600,00	500,00	35,00	100,00	7,00
700,00	600,00	42,00	100,00	7,00
800,00	700,00	49,00	100,00	7,50
900,00	800,00	56,50	100,00	7,50
1.000,00	900,00	64,00	100,00	7,50
1.100,00	1.000,00	71,50	100,00	7,50
1.200,00	1.100,00	79,00	100,00	8,00
1.300,00	1.200,00	87,00	100,00	8,00
1.400,00	1.300,00	95,00	100,00	8,00
1.500,00	1.400,00	103,00	100,00	8,37
1.500,00 euro baino gehiago	Gehieneko tarifa	111,37 euro		

4. BURUKO ERITASUN KRONIKOA DUTEN PERTSONENTZAKO ZERBITZUAK

• Egoitza zentroak

Erabiltzaileak prezio publikoa osorik ordaintzeko ahalbide ekonomiko nahikorik ez badauka, esandako zerbitzuen ziozko banako prezioa erabiltzaile horren banako eta hileko ahalmen ekonomikoaren ehuneko 80koa izango da, baina, nolana ere, 12.1 artikulua ezarritako erabilera libreko zenbateko egokiari eutsi behar zaio. Zenbateko hori gainerakoan bermatuko da, ondare konputagarriaren kontura.

Erabilera libreko zenbateko egokiari eusteko ondare konputagarri nahikorik izan ezean, banako prezioa gutxitu egingo da 12. artikulua kasuan-kasuan ezartzen duen zenbatekoa bermatu arte.

Erabiltzailearen ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez berarekin lotuta dagoen pertsonak –foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan– familiaren egoitzan bizitzen jarraitzen badu, erabilera libreko zenbatekoa (12.1 artikuluan zehaztuta) ehuneko 50 handitu beharko da.

- Atsedeen zerbitzua egoitza zentroetan

Erabiltzaileak prezio publikoa osorik ordaintzeko ahalbide ekonomiko nahikorik ez badauka, egoitza zentroetan eskaintzen den atsedeen zerbitzuaren ziozko banako prezioa erabiltzaile horren banako eta hileko ahalmen ekonomikoaren ehuneko 80koa izango da, baina, nolana ere, 12.1 artikulua ezarritako erabilera libreko zenbateko egokiari eutsi behar zaio. Zenbateko hori gainerakoan bermatuko da, ondare konputagarriaren kontura.

Erabilera libreko zenbateko egokiari eusteko ondare konputagarri nahikorik izan ezean, banako prezioa gutxitu egingo da 12. artikulua kasuan-kasuan ezartzen duen zenbatekoa bermatu arte.

Erabiltzailearen ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harremanaren bidez berarekin lotuta dagoen pertsonak –foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian lotura hori zehaztu den baldintzetan– familiaren egoitzan bizitzen jarraitzen badu, erabilera libreko zenbatekoa (12.1 artikuluan zehaztuta) ehuneko 50 handitu beharko da.

- Eguneko zentroa egoitza zentroetan

Zerbitzu horren banako prezioaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako baremo taula honetako hileko kopuruak aplikatu behar dira, familiaren hileko ahalbide ekonomikoa oinarritzat hartuta:

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROAK)	GEHIENEZ (EUROAK)	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ	EHUNEKOA
Gutxienez, 0,00	0	0	500,00	12,00
600,00	500,00	60,00	100,00	12,00
700,00	600,00	72,00	100,00	12,00
800,00	700,00	84,00	100,00	13,00
900,00	800,00	97,00	100,00	13,00
1.000,00	900,00	110,00	100,00	13,00
1.100,00	1.000,00	123,00	100,00	13,00
1.200,00	1.100,00	136,00	100,00	14,00
1.300,00	1.200,00	150,00	100,00	14,00
1.400,00	1.300,00	164,00	100,00	14,00
1.500,00	1.400,00	178,00	100,00	16,60
1.500,00 euro baino gehiago	Gehieneko tarifa		194,60 euro	

Zerbitzu bakoitzaren zioz ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, foru dekretu honen I. eranskineko 24.1 eta 24.2 tarifak aplikatu behar dira aurreko taulan ageri diren zenbatekoen gainean, modalitatea zein den.

Laugarrena. Aldatzea 40/2019 Foru Dekretuko IV. eranskinean jasota dauden 41. eta 42. ereduak. Foru dekretu honen eranskinean ageri den ereduaren arabera geratuko dira idatzita.

Xedapen indargabetzailea

Foru dekretu hau indarrean sartzen denean, indargabeturik geldituko dira arau honetan ezarritakoaren kontra doazen maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetatik lehenengoa. Indarrean jartzea

1. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, ondoren zehazten diren I. eranskineko aldaketak salbuetsita; aldaketa horiek 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak.

- 4. tarifa. Landa eremuko ostatu zerbitzua.
- 8.1. tarifa. Arreta pertsonala emateko zerbitzua
- 8.2. tarifa. Otordu zerbitzua

- 8.3. tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua
- 8.4. tarifa. Bainu geriatrikoa emateko zerbitzua
- 20.3 tarifa. Atsedeen zerbitzua aldizkako laguntza eskaintzen duen etxebizitzan
- 30.2. tarifa. Otordu zerbitzua landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuan
- 30.4. tarifa. Bainu geriatrikoa landa eremuko ostatu zerbitzuan
- 30.6. tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuan
- 31.2. tarifa. Otordu zerbitzua landa eremuko adinekoentzako ostatu zerbitzuan

2. Honako foru dekretu hau Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzu guztiei aplikatuko zaie, indarrean hasten den datatik aurrera, zerbitzuen prestazioa noiz hasi den gorabehera.

Azken xedapenetatik bigarrena. Argitaratzea

Araudi berri hau ALHAOn argitaratzeko agindu da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 13a

Diputatu Nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Gizarte Politiken foru-diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

Inantza eta Aurrekontu zuzendaria

EDUARDO LÓPEZ DE AGUILETA DIAZ

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUELEZ